# Mugikortasun desafioa

eskolara, bestela noa!



# Eskolen Arteko Mugikortasun Desafioa: Zatoz eskolara autoz bestela!

## Zergatik parte hartu?



Desafio horretan parte hartzea ingurumen sanoaren eta elkartasun gehiago duen komunitatearen alde egitea da.

Autoa gutiago erabiliz gero:
-CO2 igorpenak murriztuko dira
-Auto-lerro gutiago izanen da
-Airearen kalitatea hobeagoa izanen da
-Garraiobide alternatiboak ezagutuko dira
-Bizimolde aktiboa eta iraunkorra sustatuko da




## Nola altxa desafioa?







1.Hauta zure garraiobidea: bizikleta, ibilketa, trotineta, garraio publikoak, autokidetza, etab.
2.Antola zaitez: zure bidea aitzinetik antola ezazu; bide-kideak atzeman itzazu lagun edo auzoen artean.
3.Zure esperientzia parteka ezazu: hartu argazkiak, konta zure bidaia eta parteka sare sozialetan hashtag honekin # HEMD (HazparnekoEskolenMugikortasunDesafioa).

Josta Leku aisialdi zentroak lagunduko zaitu desafioa altxatzen: desafio denboran bizibusa eta oinbusa egitea proposatuko dute goizetan. Argibide gehiago ukaiteko:
www.hasparren.fr.

Josta Leku

# Eskolen Arteko Mugikortasun Desafioa: Zatoz eskolara autoz bestela!

## Eta ondotik?


Challenge Mobilité

ville de HASPARREN HAZPARNEko herria

Eskolan, bestela noa!

CHALLENGE AITZINEKO KONTAKETA BULETINA

Challenge astea: Autoaren ordez mugitzeko moduak lehenetsi!

Eskola : .................. Ikastaldea: .................. Irakasle: ..................

IKASLE KOPURUA + LANGILEAK JOAN-ETORRI MOTAREN ARABERA

| EGUN | ibilketa | bizikleta | Patinetea | irristailu/ Skateboard | garraio publikoak | autokidetza | beste garraiobide alternatibo | automobil | Eguneko guztizko efektiboa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| maiatzaren 26a Astelehena | | | | | | | | | |
| maiatzaren 27a Asteartea | | | | | | | | | |

Ikasle eta langile bakoitzarentzat, aste honetako goiz guziz (deian adibidez), eskolarat joateko erabiltzen den bidaia moldea adierazi.
Emaiozu buletin hau zure zentroko erreferenteari, bete ondoren: Mr. Gomes Benjamin

Eskola bakoitzeko irakasleek haur bakoitzak erabili garraioen zerrenda eginen dute desafioa aitzin eta ondotik izan bilakaera ezagutzeko.

Desafio bukaeran sari-banaketa bat antolatuko dugu eskola bakoitzeko ikastalde engaiatuena eta arrakastatsuena saritzeko.
Baina sustut, espero dugu ekimen horrek inspiratuko zaituela garraio-molde iraunkorragoak erabiltzeko egun guziez.







**Elkarrekin egin dezagun gure herria mugikortasun iraunkorraren adibide!**

# Bizibus eta Oinbusen antolaketa aisialdi zentroarekin

## Nola iraganen da?

Aisialdi zentroak data batzuk finkatu ditu Bizibus eta Oinbus ateraldiak egiteko eskolen arabera.



- Ezkia ikastolarentzat ekainaren 3an eta 10ean, asteartearekin.
- Santa Terexa eskolarentzat ekainaren 5ean eta 12an, ostegunarekin.
- Jean Verdun eskolarentzat ekainaren 6an eta 13an, ostiralarekin

- Eskola bakoitzak hiru ibilbide desberdin ukanen ditu:
- • Ibilbide URDINA eta ibilbide BERDEA, biak Bizibuserako (bidaia bizikletaz, arduradunekin),
- • Ibilbide ARROSA, Oinbuserako (bidaia oinez, taldean).

Ibilbideei, geldialdiei eta tenoreei buruzko argibideak dokumentu bukaeran atzemanen dituzu eskema moldean, errazkiago ulertzeko gisan.




## Aginduak

**Bidaiak ongi iragan daitezen zenbait agindu inportante errespetatu behar dira:**



**Nahitaezkoa da kaskoa buruan izatea** bizikletaz ibiliko diren haur guzientzat.

Erabiliko diren bizikletak **funtzionamendu-egoera onean** izan behar dira. Otoi, arrastak, errotak eta katea kontrola partitu aitzin.



**Funtsezkoa da tenorez izatea:** hemengo mapan jakinarazi tenorean partituko gara, berantiarren beha egon gabe.

**Animatzaileak izanen dira** hitzordu toki bakoitzean **bidaia zaintzeko** eta haurren segurtasuna bermatzeko (argazkiak mapan).



**Partitzeko geldilekuan legezko arduraduna nahitaez han izan behar da** haurra animatzaileekin uzteko.

# Bizibus eta Oinbusen antolaketa aisialdi zentroarekin

## Busen erabiltzeko baldintzak eta erreserba:

Antolatu bidaietan parte hartzeko nahitaezkoa da erreserbatzea. Horretarako galdeketa bat bete behar da linean, eskola bakoitzarentzat balio duen lotura baten edo QR kode berezi baten bidez:

**Jean verdun eskola**

https://tinyurl.com/CMHJeanverdun

**Ezkia ikastola**

https://tinyurl.com/CMHIkastola

**Santa-Terexa eskola**

https://tinyurl.com/CMHSaintetherese




## GOAZEN!

Argibide gehiagoren ukaiteko, Josta Leku aisialdi zentroarekin harremanetan sar zaitezke:

06 24 84 46 03

guichet-unique@ville-hasparren.fr

IZEN EMATEAK

https://tinyurl.com/CMHIkastola

# Ezkia Ikastola

## (Ibilbide)

ekainaren 03an asteartea

ekainaren 10ean asteartea




Ibilbide urdina (Vélibus) :
1. Lauak enpresaren aparkalekua: Ahotzeko bidea
2. Postako gutunontziaren aitzinean: Auzo Arteko bidea, 2
3. Igerilekuko aparkalekua:Xapitalea lotizamendua, 438

Ibilbide berdea (Vélibus) :
1. Zikinontzien aitzinean: Bordaxuri karrika
2. Leclerceko aparkalekua D622
3. Mendealako aparkalekua: Charles de Gaulle etorbidea, 15

Ibilbide arrosa (Pédibus) :
1. Elgar zentroko aparkalekua: Gaskoina karrika
2. Elizako plaza: Pierre Broussain karrika, 2
3. Santa Terexako aparkalekua: Terexa karrika


Léa


Iban


Enzo


Vaitiare


Mailen


Elizabeth


Delphine